

ALTZAKO SAN MARTZIALAK

OSTIRALA, EKAINAK 26

- 17.45etan:** Pilota Txapelketako finalak
19.00etan: Buruhandiak kaleetan zehar
21.30etan: Altzatarra elkartean pilota txapelketako partaideekin afaria.
00.00etan: Zabaleta eta Imanol taldearekin dantzaldia pilotalekuan.

LARUNBATA, EKAINAK 27

- 10.00etan:** Laugarren judo txapelketa. Euskal Herriko judolari onenak izango dira.
11.45etan: Judo eta Jitsu erakustaldia Shiai Altza Judo Elkartearen eskutik.
12.30etan: Herri Ametsako dantzariak eskainitako saioa.
13.45etan: Koadrilen arteko txikiteo ezaguna.
16.00etan: Eskuz binakako bigarren pilota txapelketa. Bola jaurtiketa-Udal bolatokian.

- 16.30etan:** Boskarren areto futbol txapelketa.
18.30etan: Toka txapelketa.
 Bigarren Sagardo Eguna. Sagardo ekoizleak: Astigarragako Lizeaga, Gartziategi eta Petrítegi, Hernaniko Otsuenea eta Oreretako Egi-Luze. Hauekin batera, Oreretako Talogile Taldeak ere parte hartuko du.
00.00etan: Dantzaldia Agirren taldearekin.

IGANDEA, EKAINAK 28

- 10.00etan:** Meza San Martzial elizan.
10.45etan: Zortzigarren sagardo lehiaketa. Ekoizleak: Barkaiztegi, Buenaventura, Gartziategi, Lizeaga, Petrítegi, Zabalegi, Altzueta eta Otsuenea.
11.30etan: Boskarren areto futbol txapelketako finala.
12.00etan: Txalaparta Astigarragako Musika Eskolaren eskutik. Frontoian.
12.45etan: Jubilatuen San Martzial abesbatza eta Errondaiaren emanaldia.
13.30etan: Herri Kirolak. Bi talde izango dira. A taldean: Arria II, Aierbe eta Latasa II. B taldean: Agite, Latasa I eta Telleria. Harrijasotzen, trontzan eta aizkoran arituko dira.
16.30etan: Poto eta igela txapelketa.
18.15etan: Xingola hartzeko lasterketa enparantzan.
19.00etan: Sardin jana plazan.
23.30etan: Triki ta ke! taldearekin dantzaldia.
- ## ASTELEHENA, EKAINAK 29
- 19.00etan:** Buruhandiak kaleetan.
20.00etan: Eslava Salbea San Martzial elizan.
21.00etan: Danborradako partaideekin afaria Altzatarran.
22.30etan: Ohiko danborrada Pasai musika taldearekin.
00.00etan: Altzako alkateordetzaren balkoitik banderen jasoaldia. San Martzialen omenez egindako

SAGARDO EGUNA

Bigarren sagardo eguna ospatuko da larunbatean arratsaldeko 18.30etan. Sagardotegi askotatik sagardoak ekarriko da jendeak dasta dezan.



ALTZA

taberna

Altza pasealekua 55

jaupe

liburudenda Paperdenda

LUIS MARI
JAUREGI

Larratxo Pasealekua, 39
Tfnoa.: (943) 39 37 78

 **TRANSPORTES**

J. M. ARRIETA


Herritar guztiari zorionak eta jai alaitsuak opa dizue

Marrus bidea 69, Illarregi baserria, ALTZA • Tfnoa.: (943) 35.23.85
Mobilak: 908.177.788 eta 908.676.974



SAN JOSE CALASANZ

ALTZA - HERRI IKASTETXEA



TXAPIN-ENE 21-23 • 20017 DONOSTIA • Tfnoa. eta faxa: (943) 35 20 24

«AHTk Urumea ibarra txikituko du»

Mikel Alvarez

ahal izango da.

Hala eta guztiz ere, denak ez daude pozik proiektu honekin. AHTren Aurkako Asanbladak, adibidez, hainbat manifestazio egin ditu egitasmo hau salatzeke. «AHTren eraikitze lanetan lur kopuru handiak mugiarazi eta zubiak, tunelak eta aldapak egin beharko dira. Bestalde, tren honen energia gastua handiegia izango da eta berotegi efektua eta euri azidoa handitzen ere lagunduko du», adierazi digu Mikel Alvarez talde honetako kideak.

Mikelen esanetan, Urumea ibarrarentzat oso kaltegarria izango da: «AHTk natura aldetik hain aberatsa den bailara hau txikitu egingo du. Ergobia eta Anbotegi izeneko baserriaren artean 1.400 metroko luzeera eta 5-8 metroko altuera duen aldapa eraikitzeke asmoa dute. San Markos tunel batek zeharkatuko du. Eta bailara osoan hogeitabat baserri behera botako dituzte».

Baserritarrak ere haserre

Honez gain, AHTren Aurkako Asanbladak egitasmo honen atzean dagoen gizarte eredu ere salatu du. Beraien ustez, neoliberalismoak bultzatutako proiektua da, herrien eta pertsonen arteko ezberdintasunak areagotuko dituena. «Proiektu hau merkatuaren globalizazioan kokatu beharko genuke. AHTren bidez, hiri gunen han-


diak elkarlotu nahi ditu Europako Batasunak, herri txikiak bazterrean utzita. Honek lurralde zentralizorantz garamatza, zerbitzu guztiak hiri handietan jarri nahi baitituzte», dio Mikelek.

Ido beretik tiraka, Euskal Herriko Nekazarien Elkarteak ere kritika egin dio AHTri. «Baserri asko galduko dira eta lanpostuetan, kultura edota hizkuntzan eragin kaltegarria izango du. Honekin batera salatu beharra dago AHT Estatuaren interesei begira, eta ez Euskal Herrikoei, egin-

dako proiektua dela. Jose Antonio Maturana sailburuak berak ere halaxe adierazi du. Diseinua gure interesak eta gure lurraldeak honelako

azpiegitura onartzeko duen gaitasuna kontuan hartu gabe egin da», diosku Marta Agirrezabala EHNEko Gipuzkoako idazkari nagusiak.

AHTren ibilbidea Donostian



Argazkia: Inanol Olegi

Agirretxe eta Okendotegi baserriak behera bota beharko dira AHTren eraikitze lanen ondorioz. Guztira 20 baserri eraitsiko dituzte Urumea ibarrean.